




EAEko BPG %1,6 hazi zen laugarren hiruhilekoan

EAEko BPGaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu berri duen aurrerapenaren arabera, **EAEko ekonomia %1,6 hazi zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean**. Hori horrela izanda, EAEko BPGa %1,8 handitu zen 2023. urte osoan, 2021eko (%6,0) eta 2022ko (%5,4) aparteko hazkundearen azpitik.

Hoteletako gaualdiek gorantz jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura. Milakoak




Iturria: Eustat.

2023ko abenduan, EAEko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %7,0 gehitu ziren 2022ko abenduaren aldean. Era berean, urte osoan, gaualdien zifra 7.000.000tik gorakoa izan zen, datuak argitaratzen direnetik inoiz jasotako erregistrarik handiena baita.



Industriaren produktuak gero eta merkeagoak dira

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

EAEko IPRI indizea %5,9 jaitsi zen abenduan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Jaitsiera hori, berriz ere, energiaren bilakaerak eragin zuen. Urteko batez bestekoari dagokionez, aldakuntza tasa $-2,0\%$ izan zen, hau da, 2020tik jaso den erregistrorik txikiena.

Etxebizitzen gaineko hipotekak %17,6 jaitsi ziren

Etxebizitzen gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko urtarriletik azarora bitartean



Iturria: INE.

Etxebizitzen gainean eratutako hipoteken kopurua %17,6 murriztu zen azaroan aurreko urteko aldi beraren aldean. Urteko kopuru metatuan, oso antzeko jaitsiera jaso zen ($-17,7\%$), 17.900 hipoteka formalizatu baitziren, aurreko urtekoak baino askoz gutxiago.